



## SARRIGURENGO 2024ko JAIETAKO HAUR ESKORGEN LASTERKETAREN OINARRIAK

### 1. Deskribapena:

Haur eskorgen lasterketa, pedalik gabeko haur-ibilgailuaekin egindako eta 1 eta 4 urte bitarteko haurrei zuzendutako lehiaketa da. 2025ko ekainaren 8an, igandean, egingo da, Udaletxeko behealdean (Garajonay Sarriguren kalea), 17: 30ean.

### 2. Izen-emateak:

Izen-ematea lasterketaren egunean bertan egingo da, 16:45etik 17:15era bitartean, bertan izanen den epaimahaiaren mahaian. Izen-ematea doakoa izango da. Izena emateko unean, adingabearen datuak hartuko dira eta dortsal bat emango zaio, ikusteko moduan jarri beharko duena.

### 3. Kategoriak:

Bi kategoria egonen dira, gehienez 50 parte-hartzaile kategoria bakoitzeko:

- 1 eta 4 urte bitartekoak, bi gurpileko eskorgak (plastikozko motorrak) trebetasunez erabiltzen dituztenak.



- Bizikleta ebolutiboak (pedalik gabekoak) trebetasunez maniatzen dituzten 1 eta 4 urte bitartekoak.



### 4. Araudia:



Inskribatutako pertsona guztiak araudi honen berri dutela ulertzen da eta ezin izango dutela alegatu haren berri ez dutenik.

Parte-hartzaile bakoitzak aurreko oinarrian ezarritako baldintzak betetzen dituen ibilgailu bat izan beharko du, eta ibilgailua egoera onean egon beharko da. Udalak ez ditu ibilgailuak jarriko. Ez dira baimenduta egongo adierazitakoak ez diren beste gailu batzuk: patineteak, monopatinak, auto elektrikoak, etab.

Kasua erabiltzea nahitaezkoa izango da, eta behar bezala jarrita ez eramatea deskalifikatzeko arrazoia izango da. Eskularruak, belaunetakoak eta ukondoak erabiltzea ere gomendagarriak dira.

Dortsala ikusgai izan beharko da.

Lasterketa ez da etengo eguraldi txarragatik, non eta antolatzaileek ez duten erabakitzen lasterketa kaltegarria izan daitekeela parte-hartzaileen osotasun fisikoarentzat.

Guraso batek edo adingabearen arduradunak lagundu ahal izango dio parte-hartzaileari irteera lerroan, baina korrikalariak laguntzarik gabe osatu beharko du zirkuitua.

Parte-hartzailea edozein unetan lasterketatik erretiratu ahal izango da.

Agiri hau sinatzeak antolakundea erantzukizun orotatik salbuesten du sor daitezkeen kalte edo galerei dagokienez, bereziki lasterketan parte hartzerakoan gerta daitezkeen erorikoei dagokienez.

## **5. Datuen babesa:**

Norberaren irudirako eskubidea Konstituzioaren 18. artikuluari aitortzen zaio, eta Ohorerako, norberaren eta familiaren intimitaterako eta norberaren irudirako eskubideari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Legeak eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak arautzen dute.

Datuak Babesteko Legeak behartzen gaitu gurasoen baimena izatera adingabeen argazkiak argitaratzeko, eta, horregatik, baimena eskatzen diegu gurasoei edo legezko tutoreei, kirol-ekitaldi honetan parte hartzen duten haurrak banaka edo taldean agertzen diren irudiak argitaratu ahal izateko, ekitaldi horretan egindako sekuentzia eta jarduera guztietan.